

## Arrisku laboralen prebentziorako foroak bete egingo du gaur Sandiusterri

■ Osalaneko burua, Audientzi Probintzialeko Fiskala, sindikatuak, lan inspektoreak, gerenteak eta abar bilduko dira gaur, 'Ibarlas' elkarteak antolatutako foroan ■ Foroa Felix Iraola Merkataritza Ganbarako buruak zabalduko du.

ARRISKU laboralen prebentzioan sakondu eta jendea kontzientziatzeko helburuarekin, egun osoko foroak egingo da gaur Hernanin, eta Sandiusterri ia bete egingo da. Foroa *Ibarlas* enpresa elkarte berriak antolatu du. Juan Bautista Vázquez *Ibarlaseko* lehendakariak hitz batzuk egin ondoren, Felix Iraola Gipuzkoako Merkataritza Ganbarako lehendakariak inauguratu du lan munduko sektore ezberdinak bilduko dituen foroak. Hor izango dira CCOO, LAB, ELA eta UGT sindikatuak, Osalan *Laneko segurtasuna eta Osasunerako* euskal

Forora Gipuzkoa osotik dator jendea: enpresa gerenteak, enpresetako segurtasun buruak, eta injenieritza eta enpresaritza ikasleak ere bai.

erakundea, teknikoak eta Iñaki Galdos zuzendaria bera, Victor Monreal Gipuzkoako Lan Inspektzioko burua, Luis Seguro Audientzia Probintzialeko Fiskala, Miguel Mu-

ñoz *Zitap*-eko kidea eta abar.

Foroak 8 ponentzia izango ditu, sindikatuen interbentzioa kontatuta, 4 goizean eta 4 arratsaldean. 12:30etan Miguel Muñoz *Zitap*-eko ordezkariak gero eta sona gehiago hartzen ari den fenomeno bati buruz hitz egingo du, Mobbing edo laneko akosoari buruz.

Arratsaldean jardunaldia sindikatuak zabalduko dute: ELAtik Luis Mari Arana dator, UGTtik Salvador Aranzueke, CCOOtik Javier Arrizabalaga, eta LABetik Juanjo Rodriguez. Foroa Osalaneko Gipuzkoako lehendakariak itxiko du. □

### PROGRAMA

10:15. Victor Monreal. Lan Inspektzioa.

10:45. Iñaki Galdos. Osalaneko zuzendaria

12:00. Luis Seguro. Fiskala. *Ardura eta isunak eremu penalean.*

12:30. Miguel Muñoz. *Zitap. Mobbing-a.*

16:00. Sindikatuak: ELA, LAB, CCOO eta UGT

17:00. Jon Lasa. Semantec-eko gerentea. Makinen seguritatea: *lanerako tresnen ebaluazioa.*

17:30. Juan Mari Otegi. Eucherko teknikoa. Lan ekipozentzako soluzio praktikoak.

18:15. Javier Martinez Iturralde. Osalan. *Zaratari buruzko 1316/89 erreglamendua.*

19:00. Alvaro Abancens, Osalan.

## EA eta EAJ berriz ere koalizioan joango dira 2003ko Udal Hauteskundeetan

■ Bi alderdiek aste honetan 'formalizatu' dute akordioa, EAko Batzar Orokorak bidea zabalik utzi ondoren.

EUSKO Alderdi Jeltzalea eta Eusko Alkartasuna berriz ere elkarrekin aurkeztuko dira 2003ko Udal Hauteskundeetan. Joxan Rekondo eta Jose Ramon Lasartek Kronikari adierazi diotenez, datoen hauteskundeetan elkarrekin joateko kontaktuak lehendik zetozen. Akordioa lotzeko EAko Batzar Orokoraren baiezkoaren zai zeuden eta hori aste honetan etorri da.

EA-EAJ koaliziotik alkatetzarako kandidatua zein izango den oraindik erabakitzeke dago, bi alderdietako buruen hitzetan. Jose Ramon Lasartek aitortu du dagoeneko ari direla kandidatuaren bila. Kandidatoa aukeratzeko prozesuak epe konkreturik ez badu ere, EAJko buruak azaldu du komeni dela alkatetza lehenbailen aukeratzeari.

### 11 urte elkarrekin

EA eta EAJk 11 urte daramazkete Hernaniko Udaletxean elkarrekin lanean, eta azken 3ak koalizioan. Bi alderdiek



EA-EAJko Udal Taldea Pleno batean. Ezkerretik: Rekondo, Lasarte, Arratibel, Crespo eta Barrio.

orain arteko elkarlana oso begi onez eta positiboa ikusten dute. Joxan Rekondoren esanetan, "abertzaleen artean izan zen haustura ostera berriz bideratzea lortu zen, eta horrek onurak ekarri ditu bai lanerako eta baita herriarentzako ere". Rekondok esan du EAJ eta EAJk elkarrekin lan eraginkorra egin dutela. Bai ideietan eta bai iniziatibetan aukerak haunditzea ekarri duela dio 8 urtez alka-

te izandako EAko buruak, eta garbi ikusten du aurrerako ere bien arteko koalizioa dela bide egokiena.

Jose Ramon Lasarte EAJko ordezkariak ere oso positibo baloratu du EAJ eta EAren arteko elkarlana. "Zortzi urtean Udal gobernuan izan gara eta azken urteotan oposizioan; urte guzti horietan elkarrekin oso ondo egin dugu lan eta ondo konpondu gara" dio Lasartek. EAJko

burua ere erabat sinistuta dago aurrera begirako formularik egokiena berriz ere Eusko Alderdi Jeltzalea eta Eusko Alkartasuna elkarrekin joatea dela. □

## Hernaniar bat zauritu da trafiko istripuan

PIKOAGA eta Ugaldetxo artean kamioi eta kotxe batek elkar jo zuten atzo, eguerdiko 14:30ak inguruan. Kotxe gidaria, JA. L. E 34 urteko hernaniarra, kotxe barruan gelditu zen, eta bonberoez aterata behar izan zuten. Donostiako Ospitalean dago. □

### ETXERAT ELKARTEA

## Enkartelada gaur

ETXERAT elkarteak enkartelada egingo du gaur iluntzeko 20:00etan euskal presoek giza eskubideak aldarrikatzeko. Etxerategi hernaniarrei ekitaldian parte hartzeko deia egin die. □

### ESKEINTZA BEREZIAK

TENERIFE  
Puerto de la Cruz  
Urria amaieran

(Bilbotik aterata: urriaren 29an)  
2 izarreko Hotela 172 euro  
4 izarreko Hotela 219 euro  
+ TASAK (18 euro)

6 gau (Pentsio erdia)

REPUBLICA  
DOMINICANA  
Punta Cana

Azaroa - Abendua  
Hodelpa Tropical H. \*\*\*\* 601 e  
Riu Naiboa H. \*\*\*\* 627 e  
+ TASAK (42 euro)

8 egun eta 7 gau

### HERNANI BIDAIAK

Urbietan etorb. 6 - ☎: 943 330049 - 330174

e-mail: hernanib@teletel.es

Hernanitik munduko leku guzietara iristen lagunduko dizugu.



ADARRA

ETXE TRESNAK S.A.

Txirrita 11  
Tel. 943 55 04 27  
20120 HERNANI (Gipuzkoa)

ADARRAGA  
Konfitegia  
Pasteldegia

Urbietan Etorbidea 7  
☎ 943 55 09 10



HERNANI (Gipuzkoa)

## Maialen Lujanbiok benetakotasuna, ardura eta ausardia aldarrikatu ditu bertsolaritzan

■ Bertsolari hernaniarrak bertsoan zein gaietaz kantatzen den eta gaien tematika aztertu ditu, Bertsozale elkarteak antolatu duen jardunaldi baten barruan.

**BERTSOZALE** Elkarteak bertsoarako *gaiari* buruz jardunaldi batzuk antolatu ditu: hitzaldiak, saio esperimentalak eta abar. Hitzaldietako bat Maialen Lujanbiok prestatu du eta *Zertaz ari gara zertan ari gara* du izenburua. Bertsolari hernaniarrak azken hiru urteetako gaiak aztertu ditu, eta gaur egungo bertsolaritzari aldaketa batzuk proposatzen dizkio. Darabilzkien kontzeptu batzuk dira, bertsolariak norberago izatea eta norbere barrutik kantatzea gehiago, gaiak zabalak eta sugerenteak izatea, bertsolariak jarrera langileagoa hartzea, bai bertso jaialdi osoak eta bai ofiziotako saioek osotasun gehiago izatea eta abar.



Maialen Lujanbio bertsolaria.

Maialen Lujanbiok azken hiru urteetako gaiak aztertu, eta ikusi du, bertsoan jartzen diren gai gehienak hiru edo

lau multzotan sartu litezkeela eta nolabait unibertsalak direla: 1) harremanak, maitasuna, sexua... 2) Egoera sozial eta politikoa 3) Denbora, etorkizuna, iragana, belaunaldiak, bizitza eta abar. Txapeldun ordearen ustez, gai unibertsal horiek hori egon izan dira eta hor jarraritu dute eta aldaketa gai

horiek tratatzeko eran eta kantatzeko ikuspegian dator. Maialenek hor egin behar dela uste du apustua eta hortik asko irabaziko lukeela bertsolaritzak. Proposamen horretan, Maialen Lujanbiok uste du aldaketa egon behar lukeela bai bertsoan eta baita gaietan ere. Labur esanda, gaiei eskatzen die zabalak eta sugerenteak izatea, eta kontestura egokituak egotea; bertsolarietako, ardura, ausardia eta jarrera langileagoa eskatzen die, inertziatik aldegin.

Gaiari buruzko jardunaldia Andoainen da, bihar goiz eta arratsalde, Martin Ugalde Parkean. Hitzaldiak 10:00etan hasiko dira eta Maialen Lujanbiok gain hor izango dira: Andoni Egaña, Josu Goikoe-txea, Jon Abril eta Karlos Aizpurua. Izena emateko, 943-217798. □

### ■ PELOTA

## Esnal eta Oiaga Laurterdiko txapelketatik kanpora gelditu litezke

■ Asegarce eta Aspek enpresen liga antolatu dute eta Besagaingo pelotariak hartzeko asmorik ez dute azaldu ■ *Eskutik* pelotari sindikatuak zer egiten duen ikusi beharko da.

ASEGARCE eta Aspek aurkeztutako enpresen ligak eman du zeresana. Lauterdiko txapelketa beren gain hartu dute eta bi enpresa horietakoak ez direnei badirudi ez dietela parte hartzen utziko. Hernanin profesional mailako bi pelotari ditugu Besagain enpresan, eta arriskuan daude bigarren mailako txapelketatik kanpora gelditzeko.

Zenbait pelotari (Barriola txapelduna adibidez) eta *Eskutik*

pelotari sindikatua, enpresak hartutako erabakiaren kontra azaldu dira. Sindikatua negoziatzean ari da enprekin, baina, oraindik ez dirudi ezer lortu dutenik. Ikusi beharko dena da goi mailako pelotariak enpresak zenbat estutzeko prest dauden, horren arabera aldatuko baita proposamena, aldatzekotan ere. Hernaniko bi pelotarietaz eta Besagaineko besteentzat garrantzia berezia du gai honek,

behin txapelketatik kanpora gelditu ezker zail izango baitute hemendik aurrerako txapelketetan onartzea. Gainera, Iñaki Esnalen kasuan palmares ona du Lauterdiko txapelketan: orain 2 urte lau onenekin jokatu zuen ligaxka. Egoera berean dauden beste bi pelotari Errandonea eta Ariznabarreta dira.

Datorren astelehenean argitu liteke pelotariak huelgara joango diren ala ez. □

### Umeentzako

antzerkia atzeratu egin da

BIHARKO umeentzako antzerkia antolatua zegoen Biterin, baina, atzeratu egin da azaroaren 9ra. □

### ZINEA BITERIN

'Mismo amor, misma lluvia'

GAUEKO 22:30etan *Mismo amor, misma lluvia* filmea izango da gaur Biterin. Bihar eta etzi ere botako dute. Umeentzako *Lilo & Stich* filma ere izango da bihar eta etzi, arratsaldeko 17:00etan. □

### ■ PELOTA

Hiru partidu gaur

Paleta goman Manzisidor Martinez/Kuku, 21:30etan Anoetan; eskuz, Sarasua-Artano/Beloki 21:30etan Zumarragan. Kadeteak, Erdozio-Huizi/Sanesteban, 20:30etan Tolosan. □

### EMAKUMEAREN ZENTRUAN HITZALDIA



Elkano 17ko lokalean jende dezente bildu zen hitzaldian.

## "Legedian berdintasuna badago baina eguneroko errealitatean ez"

■ Arantza Etxeberria zuzenbidean lizentziatuak eta Puri Gonzalez abokatuak eman zuten hitzaldia.

**EMAKUMEAREN eskubideak-giza eskubideak** hitzaldia eman zuten joan den asteartean Emakumearen Zentruan.

Puri Gonzalezek herrialde desberdinetako emakumeen egoera aztertu zuen. Giza eskubideetan lehena bizitza eskubidea dela esan zuen, baina, etxean tratatu txarrak jasaten dituen pertsona batek zein bizitza daukan galdetu zuen. Pobreziaren feminizazioari buruz esan zuen, egoera zailetan emakumeak gehiago nozitzen duela pobrezia gizarte honetan, eta kasu askotan emakumeak diru iturri propiorik ez izatea dela horren arrazioa. Gauzak asko hobetu direla, baina, zer egin asko dagoela esan zuen.

**Tratu txarren % 5-10 salatu** Arantza Etxeberriak legediak eman duen aldaketa agertu zuen. Orain, legearen aurrean berdinak omen gara, baina, eguneroko errealitatean ez: lan postuetan adibidez emakume bat nekezago hartuko dute zenbait kasutan, edo lan baldintza txarragoetan. Egiten diren norma berrietan "diskriminazio positiboa" aplikatzea dela irtenbide bat esan zuen.

Etxeko tratatu txarren bueltan legeak dituen hutsuneak ere azaldu zituen. Gaur egun etxeko tratatu txarren % 5-10 bakarrik salatzen omen dira eta horien erdia atzera botatzen dute gainera, biktimak berak hala eskatuta askotan. □

### † MAURO GOYA RUIZ DE GALARRETA

JAUNA  
(Karmen Eskuderoren alarguna)  
Erenegun hil zen, 82 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.



- Goian Bego -  
Bere seme-alabak: Luken eta Mari, Peli eta Pepi, Itziar eta Patxi, Aitor eta Ana; bilobak: Berdaitz eta Olatz, Ekain eta Esti, Anartz eta Olaia, Aihert, Julen, Maialen eta Ane; anai-arrebak: Pedro eta Karmen, Miguel eta Joxepi, Leonor eta Julio, Josefa eta Jose Luis; ezkon arreba: Petra, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezela GAUR OSTIRALA, arratsaldeko ZAZPIRETAN, JUAN BATAIATZALEA parroki elizan, egingo den hiletara.

Aldez aurretik, mila esker.  
Helbidea: Perkaiztegi, 3 - 1 ezk. Hernanin 2002ko Urriaren 25ean  
OHARRA: Gorputza HERNANIKO TANATORIOAN dago. Gorputz laguntza familikoan artean egingo da.

### HERIOTZAK

Maria Asuncion Arizkorreta Larrea  
Ostegunean hil zen 76 urte zituela

Hileta elizkizunak GAUR, arratsaldeko zazpitan Juan Bataiatzailea parrokiaren.

### ZERBITZUAK

#### ☎ TELEFONOAK

▶ Taxiak: 943 550093  
▶ Udaltzaingoa: 943 333288  
▶ DYA: 943 464622  
▶ Autobusak: 943 556662  
▶ Anbulatorioa: 943 006666  
▶ Jokalari anonimoak: 943 331103

#### ☼ FARMAZIAK

▶ Egunez: Bulnes Florida auzoa ☎ 943 557738  
▶ Gaez: Atxa-Orbea Lasarte. Hipodromo 6 ☎ 943 363549

### ESKOLA KIROLA ASTEBURUKO PARTIDUAK

Pelota				Futbol sala			
Taldeak		Non	Noiz	Taldeak		Non	Noiz
Aleb. mut.	Urumea B-Urumea D	Kiroid.	Gaur 15:00	Benjaminak	Inmaculada-Langile B	Langile	Gaur 09:30
Aleb. mut.	Langile E-Urumea E	Kiroid.	Gaur 15:00	Benjaminak	Elizatxo A-Elizatxo B	Langile	Gaur 10:15
Aleb. mut.	Elizatxo B-Langile D	Kiroid.	Gaur 15:45	Benjaminak	Langile A-Urumea	Langile	Gaur 11:00
Aleb. mut.	Elizatxo A-Txirrita	Kiroid.	Gaur 15:45	Infant. mut	Langile-Udarregi	Kiroid.	Gaur 11:45
Aleb. mut.	Urumea A-Langile C	Kiroid.	Gaur 15:45	Saskibaloia			
Errugbia		Taldeak		Taldeak		Non	
Benjaminak	Langile C-Elizatxo B	Kiroid.	Gaur 09:15	Aleb. mut.	Elizatxo A-Inmaculada	Kiroid.	Gaur 09:15
Benjaminak	Langile B-Urumea	Kiroid.	Gaur 10:00	Aleb. mut.	Urumea B-Langile A	Kiroid.	Gaur 09:15
Benjaminak	Elizatxo A-Langile A	Kiroid.	Gaur 10:45	Aleb. mut.	Elizatxo B-Langile B	Kiroid.	Gaur 10:15
Boleibola		Taldeak		Taldeak		Non	
Aleb. nes.	Elizatxo-LSB 1	Andoain	Gaur	Aleb. nes.	Belen A-Urumea	Donostia	Gaur
Aleb. nes.	Urumea-San Patricio	Donostia	Gaur				

**ETXE ONENAK, S.A.**

**GARAJE ITXIAK 'OBLATOS'ETAN SALGAI**

Informatu eta saldu:  
☎ 943 33.22.37

**ITXASPE**

ARRANDEGIA

Antziola 5 - Tel. 943 330 365  
Mobila: 653 74 10 97  
20120 HERNANI